



ENPRESEN ENERGIA BETEBEHARRAK

4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, bere III. tituluan, sektore pribatuari egiten dio erreferentzia (industria-sektorea, zerbitzu pribatuak eta merkataritza, bizitegi-sektorea eta garraio pribatuak). **254/2020 DEKRETUAK**, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, xedatu egiten du aipatutako Legea.

Industria-sektorearentzat, zerbitzu pribatu eta merkataritzaren sektorearentzat eta garraio pribatuaren sektorearentzat, legeak funtsezko obligazioak jasotzen ditu energiaren kontsumoa gutxitzeko eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko. Obligazio hauek enpresa-tipologiaren arabera ezartzen dira.

NOLA JAKIN ZURE ENPRESAK BETEBEHARRAK OTE DITUEN ETA ZEINTZUK

1. ZURE ENPRESAK EZAUGARRI HAUEK BETETZEN DITU?

(Erantzuna baiezkoa bada legea aplikatu beharko duzu, joan 2. puntura)

ZURE ENPRESAK EZAUGARRI HAUEK DITU?		
INDUSTRIA SEKTOREA	ENPRESA PRIBATU ETA MERKATARITZA SEKTOREA	GARRAIO PRIBATUA SEKTOREA
<p>Energia-kontsumoa > 500 ptb (tona petrolio-baliokidea)*</p> <p>Eta Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (JESN-2009) arabera, hauetako batean sailkatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • B taldea: Erauzteko industriak. • C taldea: Manufaktura-industria. • D taldea: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura. • E taldea: Ur-hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa. • F taldea: Eraikuntza. 	<p>Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (JESN-2009) arabera, hauetako batean sailkatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • G taldea: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa. • I taldea: Ostalaritza. • J taldea: Informazioa eta komunikazioak. • K taldea: Finantza-jarduerak eta asegurueta-koak. • L taldea: Jarduerak higiezinekin. • M taldea: Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. • P taldea: Hezkuntza. • Q taldea: Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak. • R taldea: Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak. • S taldea: Beste zerbitzu batzuk. 	<p>Salgai eta bidaiarien garraio pribatuko enpresek</p>

2. SAILKATU ZURE ENPRESA

SAILKATU ZURE ENPRESA		
Aipatutako sektore bakoitzaren barruan, hainbat enpresa-tipo ezartzen dira, eta, horien arabera, neurriak arinagoak edo zorrotzagoak dira.		
INDUSTRIA SEKTOREA	ENPRESA PRIBATU ETA MERKATARITZA SEKTOREA	GARRAIO PRIBATUA SEKTOREA
<p>I1 tipoa: Industria-enpresa handiak 56/2016 Errege Dekretuaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> >250 langile edo >50milioi €-ko negozio-bolumena eta >42 milioi €-ko balantze orokorra <p>I2 tipoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> I1 tipokoak ez direnak eta urteko energia-kontsumoa > 500 ptb (tona petrolio-baliokidea) * 	<p>S1 tipoa: Zerbitzu-enpresa handiak 56/2016 Errege Dekretuaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> >250 langile edo >50milioi €-ko negozio-bolumena eta >42 milioi €-ko balantze orokorra <p>S2 tipoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> S1 tipokoak ez direnak eta urteko energia-kontsumoa >40 ptb (tona petrolio-baliokidea) * eta azpisektore hauetakoak: <ul style="list-style-type: none"> Hotelak Kiroldegi-gimnasio pribatuak Merkataritza-gune handiak Bulego-eraikinak 	<p>T1 tipoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Garraio astuna Ibilgailu-komertzialak, furgonetak >10 ibilgailu flota <p>T2 tipoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Trakzio mekanikoko ibilgailuak >10 <p>T3 tipoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Trakzio mekanikoko ibilgailuak (T1 eta T2an ez daudenak)

*Nola jakin zure enpresaren energia-kontsumoa petrolio-tona baliokide (tep): Petrolio-tona baliokideak kalkulatzeko, energia-bihurketako faktore hauek erabili behar dira:

Energia elektrikoa (argindarra)	0,086 tep/MWh
Gas naturala	0,086 tep/MWh
GLP	1,13 tep/t
Gasolina	0,7752 tep/1000 litro
A eta B gasolioa	0,8467 tep/1000 litro
C gasolio	0,7752 tep/1000 litro
Fuel-olioa	0,8881 tep/1000 litro

Iturria: Guia técnica: desarrollo reglamentario consolidado de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca, y comentarios al mismo. *Eusko Jaurlaritza*

3. ZEIN BETEBEHAR DITUZU ENPRESA MODUAN?

ZEIN BETEBEHAR DITUZU ENPRESA MODUAN?

1. AUDITORETZA ENERGETIKOA

Auditorio horien helburua da aurrezpeneko eta efizientzia energetikoko neurriak hartzea eta instalazio berriztagarriak txertatzea. Auditoretza egingo dira **ekipo, instalazio, eraikin, berokuntza- eta hozte-sistema, ibilgailu-atal eta argiterian**. Lehen auditoretza energetikoa egiteko epe-muga: **2021/11/18**

INDUSTRIA SEKTOREA	ENPRESA PRIBATU ETA MERKATARITZA SEKTOREA	GARRAIO PRIBATUA SEKTOREA
<ul style="list-style-type: none"> • NORK: I1 eta I2 motako enpresek • Lehentasanak eta egutegiak zehaztuko dira energia-kontsumoa murrizteko, bai eta energia berriztagarrien sistemak instalatzeko ere. • I1 eta I2 motakoak 4 urtean behin egingo dituzte auditoretzak 	<ul style="list-style-type: none"> • NORK: S1 eta S2 motako enpresek • Energia-kontsumo altuko instalazio eta ekipoak berritzen direnean, kontuan izango dira merkatuan dauden efizienteenak eta energia kalifikazio handienekoak. • S1 motakoak 4 urtean behin egingo dituzte auditoretzak. • S2 motakoak 6 urtean behin egingo dituzte auditoretzak. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4/2019 Legeak ez du behartzen. • 56/2016 Errege Dekretuaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> - >250 langile - edo >50milioi €-ko negozio-bolumena eta >42 milioi €-ko balantze orokorra

2. KUDEAKETA ENERGETIKOA

Energia Kudeatzeko Sistema bat ezarri beharko da, kanpoko energia-kudeatzailer baten edo sistema propio baten bidez.

Ezartzen den sistemari buruzko komunikazioa egin beharko da Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailari.

Energia kontsumoak urtean behin jakinarazi beharko zaizkio Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailari. Telematikoki egingo da adierazpena.

NORK: I1, I2, S1, S2 eta T1 motako enpresek

3. LANTOKIETAKO MUGIKORTASUN-PLANAK

Txanda bakoitzean **100 langile baino gehiagok** lan egiten duten establezimenduek, lantokira joateko **garraio-plana** izan beharko dute.

Planak garraio publikoaren edo titulartasun pribatuko ibilgailu alternatiboan erabilera ahalbidetuko dituen neurriak ezarriko ditu.

100 langile horren barne sartzen dira: lantokian lan egiten dutenak, zuzeneko kontratazioko langileak bai eta autonomoak edo azpikontrataturak enpresetako kideak ere.

Mugikortasun plan hauen berri emango zaie langile guztiei eta hauentzako eskuragarri egongo dira.

Garraioaren erabilera eraginkor eta jasagarriari buruzko prestakuntza-ekintzak zehaztu beharko dituzte ibilgailuak dauzkaten enpresek edo mugikortasun-plana nahitaez eduki behar dutenek.

NORK: I1, I2, S1, S2, T1, T2 eta T3 motako enpresek (baldin eta 100 langile baino gehiagoko txandak badituzte)

Mugikortasun Plana izateko epe-muga: 2022/11/18

4. ERAIKINEN ZIURTAPEN ENERGETIKOA

Eraikin guztiek, industrialak zein enpresa pribatu eta merkataritzakoak ziurtapen energetikoa izan beharko dute, horretarako burutu beharreko prozedimendua eginez. Garraio pribatuko sektorea 390/2021 Errege Dekretuak arautzen du.

INDUSTRIA SEKTOREA	ENPRESA PRIBATU ETA MERKATARITZA SEKTOREA	GARRAIO PRIBATUA SEKTOREA
<ul style="list-style-type: none"> • NORK: I1 eta I2 motako enpresek • Lantegirako edo industria-prozesuetarako erabiltzen ez diren industria-eraikin edo horien zati guztiek ere izan beharko dute ziurtagiria, baldin eta: <ul style="list-style-type: none"> - >50 m² azalera badute - eta berokuntza- edo hozte-sistema badute • Ziurtapen energetikoak lortzeko epe-muga: 2022/11/18 	<ul style="list-style-type: none"> • NORK: S1 eta S2 motako enpresek • Ziurtapen energetikoak lortzeko epe-muga: 2023/11/18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4/2019 Legeak ez du behartzen. • 390/2021 Errege Dekretuaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> - Eraikuntza berriko eraikinak - Saldu edo alokatuko diren eraikinak - Eraberritzeak edo handitzeak egingo diren eraikinetan - >500 m²ko eraikinetan - EAT egingo duten eraikinak

5. PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Langileak **prestatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak** burutu beharko dira, kasu batzuetan plan baten bidez. Prestakuntza plana izateko epe-muga: 2021/11/18

INDUSTRIA SEKTOREA	ENPRESA PRIBATU ETA MERKATARITZA SEKTOREA	GARRAIO PRIBATUA SEKTOREA
<ul style="list-style-type: none"> • NORK: I1 eta I2 motako enpresek • Langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko plan bat egin beharko da. • Planeko prestakuntza/jarduerak izango dira energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzeko. • Energia aurrezteari eta eragin-kortasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira eta energiaren erabilera eraginkorrera bideratutako gidaliburuak eta jardunbide egokiak argitaratu eta zabalduko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • NORK: S1 <ul style="list-style-type: none"> - Langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko plan bat egin beharko da. - Planeko prestakuntza/jarduerak izango dira energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzeko. • NORK: S1 eta S2 motako enpresak <ul style="list-style-type: none"> - Energia aurrezteari eta eragin-kortasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira eta energiaren erabilera eraginkorrera bideratutako gidaliburuak eta jardunbide egokiak argitaratu eta zabalduko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • NORK: Ibilgailuak dauzkate enpresak • Garraioaren erabilera eraginkor eta jasangarriari buruzko prestakuntza-ekintzak • Energia aurrezteari eta eragin-kortasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira eta energiaren erabilera eraginkorrera bideratutako gidaliburuak eta jardunbide egokiak argitaratu eta zabalduko dira.

6. HIDROKARBURO LIKIDOAK EZABATZEA

Energia-iturri gisa hidrokarbuero likidoak kontsumitzea gutxituz joan beharko da pixkanaka, helburua izanik guztiz desagertzea, eta haien ordeaz, gutxiago kutsatzen duten energia-iturriak erabiltzea.

NORK: I1, I2, S1 eta S2 motako enpresek

Hidrokarbuero likidoak ezabatzeko epe-muga: 2030/12/31